

Tecnalia kazetaritza-saria jaso du *Elhuyar* aldizkarian argitaratutako “Itxaropen bioartifiziala” lanak

Guillermo Roak idatzitako erreportajea Interneteko kategoriako lan onena izendatu du epaimahaiak

Elhuyar aldizkarian argitaratutako “Itxaropen bioartifiziala” lanak VI. Tecnalia kazetaritza-saria jaso du Interneteko kategorian, joan den urtarilaren 30ean Miramon Teknologia Parkean egindako sari-banaketa ekitaldian. Erreportaje-bikoa 2012ko apirilko zenbakian argitaratu zen, eta Guillermo Roa Zubia da lanaren egilea.

Artikulu-bikoak egiten duen “informazio multimediaren erabilera” nabarmendu du epaimahaiak saria emateko, eta adierazi du horren bidez “transplanteetarako organoak zelula ametatik abiatuta neurrira egiteko ahalmena, itxaropena eta errealitatea hobeto ezagutzeko lan bikain bat” osatu duela egileak.

Webguneko lanaren aitortza
Lan jakin bati emandako saria izanagatik, *Elhuyar* aldizkariak webgunean egiten duen lana ere aitortzen du izendapenak. Izan ere, paperean jaso ezin diren baliabideen bidez Interneten informazioa zabaldu eta osatzeko konpromisoarekin sortu zen, 2012ko udaberrian, aldizkaria.elhuyar.org webgunea.

Bi erreportajek osatzen dute “Itxaropen bioartifiziala” lana. Lehenengoak zelula amak ditu hizpide, eta, haietatik abiatuta, neurrira egindako organo eta ehunak sortzeko bidean non gauden galdegiten du Roak. Egitura sintetiko baten gainean zelula

amak haziz sortutako trakea baten transplanteak irekitzen du erreportajea, transplante haren bi protagonista nagusien bidez: trakearen hartzailea, batetik, eta trakearen sortzaileetako bat, bestetik. Bigarren erreportajea, organo eta ehun erabat artifizialetan jartzen du arreta egileak.

Gai labaina dela uste du Roak, eta, ondorioz, dibulgatzeko zaila. “Batetik, oreka bat lortu behar da zelula amen onurei buruz hitz egitean —dio—. Aplikazio harrigarriak dituzte [zelula amek], baina muga handiak ere bai, eta oraindik ez dira guztiz ezagutzen, ez aplikazioak, ez mugak. Zuhur jokatu behar da, ikerketa oraindik hasierako urratsetan baitago. Baina, bestetik, kontakizun zuhur hori erakargarri egin behar da”.

Kimikan doktorea, hamabi urteko esperientzia du Roak zientziaren



Trakea-transplante ikusgarri batek irekitzen du “Itxaropen bioartifiziala” lana. Harrezkero, halako trakea-transplante gehiago egin ditu arakastaz Paolo Macchiarini kirurgialariak, saritutako artikuluan azalduko teknikaren bidez.



komunikazioan, eta Elhuyarren lanean hasi zenetik aritu da *Elhuyar Zientzia eta Teknologia* aldizkarian. Lan-taldeak duen erredaktore beteranoenetakoa da Roa. "Itxaropen bioartifiziala" lanean, testuak ez ezik, erreportajea zabaltzen duen irudia ere berak egindakoa da. Irudi honez gain, beste hainbat irudi ere prestatu ditu aldizkari erreportaje gehiagotarako, Blender animazio-programaren bidez. Sariarekin "oso pozik" dago Roa: "Pertsonalki zirraragarria da, eta aldizkariaren lantaldearen ikuspuntutik ere oso pozgarria da jakitea gure lana ondo baloratzen dela".

Tecnalia sariak

Ikerketaren eta berrikuntza teknologikoaren dibulgazioa saritzen ditu Tecnalia sariak, eta "Gizartearentzako berrikuntza" izan da VI. edizioaren leloa. Sariaren bidez, hedabideetako langile profesionaleri onarpena egin nahi die Tecnalia, haien eginkizuna funtsezkoa izan baita iritzi publikoan ikerketa eta berrikuntza ezagutzera emateko, eta, beraz, kultura zientifikoa herritarrei eta gizarte osoari helarazteko. ●



Guillermo Roa Zubia (Donostia, 1968). Roaren "Itxaropen bioartifiziala" lanak 2012ko Tecnalia saria jaso du Interneteko kategorian. ARG.: EIDER CARTON/ELHUYAR FUNDAZIOA.



Aldizkariaren urteko aleen bilduma egiteko azalak



Eskaerak:
 eskaerak@elhuyar.com
 tel.: +34 943 36 30 40

